



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteartea
2008-11-11**

VIURTEA 1.556.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Aimar Irigoien, Albizuri Haundiarekin, herenegun, Harri Festan. IYUYA URRUTIA

ALBIZURI HAUNDIAREKIN ERE BIKAIN ARITU DA AIMAR IRIGOIEN

AMEZKETA Marka berria ezarri zuen Irigoienek Albizuri Haundia eta Altzi harriak jasota, herenegun, Harri Festa jendetsuaren baitan s

Otegi eta Ibarbia izan dira eskualdeko azkarrenak

TOLOSALDEA-LEITZALDEA 411 korrikalarik amaitu zuten herenegun Behobia-Donostia 2-3



Ezker abertzaleak larunbatean egin zuen agerraldia Ibarra plaza. R. CALVO

Espetxeratzeko arriskuan dago Goar Jimenez

IBARRA «Muntaia poliziala» dela salatu du ezker abertzaleak; mobilizazioak egingo dituzte e



Samartiñak 2008

Jaiak bizi eta gozatu!

Aupa Pello, Oskar, Iñigo, Emilio, Joxemari, Eneko, Julen eta urrun dauden herritar guztiak!



Villabonako
Udala

Eskualdeko 411 korrikalarik bukatu dute Behobia-Donostia lasterketa

Kirola » Eskualdean, Ramon Otegi gazteluerra gizonetzkoetan eta Aitziber Ibarbia zizurkildarra emakumezkoetan izan dira azkarrenak.

ERREDAKZIOA

Beste behin parte-hartze handia izan du Behobia-Donostia lasterketa herrikoiak. Eskualdetik ere korrikalari ugari joan dira eta 411 iritsi ziren Donostiako Bulebarrean. Eskualdeko azkarrenak Ramon Otegi gazteluerra (1:06:23) eta Aitziber Ibarbia zizurkildarra (1:29:01) izan ziren. Otegi hamai-korrikarren amaitu zuen sailkapen orokorrean eta Ibarbiak 45. emakumezkoen sailkapenean.

Gazteen artean eskualdekoak fin aritu dira. Junior mutiletan, hau da 1989-1992 urteetan jaiotakoak, Xabier Saizar tolosarra hiru-garrena izan zen (1:18:02) eta Aritz Garin billabonatarra seigarren

(1:21:50). Promesa mutiletan, 1986-1988 urteetan jaiotakoak, Garikoitz Balerdi orexarra laugarrena izan zen (1:28:18) eta promesa nesketan Naiara Eloa bide-goindarra bigarren (1:40:17).

Giro ona

Halere, lasterketa herrikoiek honek duen arrakasta parte-hartzaile kopuruan datza eta bide ertzean izaten den jende andanak ematen duen animoan. Giro horrek egiten du erakargarri eta horregatik korrikalari askok, ahal duela, urtero errepikatzen du proba. Giro ona ere korrikalarien artean sortzen da. Esaterako, autobus bat joan zen Tolosatik korrikalariz beteta.



Tolosatik autobus bat atera zen korrikalariekin Behobia aldera. JOXEMI SAIZAR

» BEHOBIA-DONOSTIA. ESKUALDEKO SAILKAPENAK

Abaltzisketa

1:33:36 Zubeldia Mujika, Iraitz (4379)
1:34:36 Senperena Irastorza, Mikel (4736)

Aduna

1:26:40 Etxeberria Artola, Liher (2163)
1:45:26 Rezola Aburuza, Alain (8537)
1:52:10 Zaldúa Zaldúa, Jon Iñaki (10512)

Albiztur

1:22:39 Condado Eloa, Isidro (1175)
1:26:59 Arandia Aranguren, Gorka (2238)

Alegia

1:12:23 Garin Ibarbia, Juan Maria (122)
1:25:03 Gonzalez Vazquez, Santi (1735)
1:25:07 Valle Horrillo, Juan Antonio (1758)
1:28:41 Rodriguez Cartagena, Ion Ander
1:29:37 Usabiaga Berstain, Iñaki (3057)
1:29:48 Aizpuru Sorondo, Imanol (3123)
1:30:09 Aizpuru Sorondo, Jon (3237)
1:32:23 Altuna Galparsoro, Aitor (3993)
1:33:23 Lampre Irulegui, Martin (4314)

1:34:49 Otegi Zabaleta, Joseba (4812)
1:34:49 Gomez Muñoz, Jesus (4818)
1:38:53 Insausti Munduate, Mikel (6307)

1:39:47 Mujika Eizmendi, Jose Manuel
1:41:10 Bordagarai Irastorza, Olatz (7151)
1:41:10 Renobales Tolosa, Iñaki (7152)
1:41:51 Aranburu Artano, Imanol (7381)
1:44:26 Garcia Benito, Andoni (8228)

1:45:02 Etxeberria, Joseba (8422)
1:45:55 Iraola Agirrezabala, Garikoitz
1:49:03 Azpillikueta Gonzalo, Ibon (9630)
1:53:16 Borrachero Mendez, Maria (10813)
1:54:52 Pereira Piña, Juan Manuel (11173)
1:55:57 Zubillaga Mañeru, Jaione (11400)

Aitzo

1:15:09 Murua Gorostidi, Iñaki (254)
1:24:13 Murua Balerdi, Mikel (1510)
1:31:39 Amiano Irizar, Ana (3741)
1:34:49 Olano Orbegozo, Iñaki (4809)
1:39:47 Iriarte Iribar, Mikel (6641)
1:52:37 Gorostiaga Esteban, Koldo (10620)
1:54:50 Galarraza Lizarazu, Aitzol (11169)
2:11:03 Iturriz Amundarain, J. Manuel (13313)
2:13:21 Agirre Letamendia, Gorka (13427)

Amezketak

1:22:55 Artola Jauregui, Garikoitz (1233)
1:28:28 Mujika Gorostidi, Iokin (2678)
1:52:57 Artola Mujika, Jose Antonio (10725)

Anoeta

1:19:52 Aranzabe Urquizar, Valentin (754)
1:21:09 Irazusta Etxeberria, Mikel (926)
1:27:30 Loidi Aguirrezabala, Jesus (2398)
1:28:42 Iraola Bengoa, Antxon (2758)
1:29:18 Atxega Zirako, Mikel Aingeru (2944)
1:32:59 Arrieta Gorostiaga, Manex (4201)
1:34:48 Irazusta Ugartemendia, Karmelo (4805)
1:36:21 Ayerbe Gallurralde, Jabi (5372)
1:36:58 Igarategi Gonzalez, Aitor (5572)
1:37:41 Balda Larrañaga, Mikel (5871)
1:37:45 Jimenez Martinez, Iñigo (5891)
1:39:11 Agirre Calvo, Ibai (6418)
1:43:49 Iturriz Mendizabal, Jesus M^a (8030)
1:44:29 Garmendia Iturralde, Jesus Mari (8249)
2:11:53 Gonzalez Miguel, Jose Adolfo (13358)

Areso

1:22:59 Escribano Menendez, Mikel (1246)

Asteasu

1:16:14 Roteta Pagadizabal, Oier (324)
1:18:30 Jimenez Grandes, Joxean (532)
1:20:14 Esnaola Iraola, Luix (807)
1:22:36 Narbarte Otaegi, Igor (1168)
1:23:04 Irazu Iraola, Iñaki (1263)
1:28:37 Garcia Fernandez, Alvaro (2721)
1:34:22 Garmendia Tapia, Rufino (4643)
1:35:14 Mujika Arregi, Luis M^a (4974)
1:35:17 Ceberio Ansa, Luis (4989)
1:40:26 Omeñaga Alcorta, Josu (6885)
1:41:20 Parrón Luceño, Javier (7207)
1:42:05 Calvo Estevez, Jesus (7457)
1:58:26 Goenaga Martiarena, Imanol (11876)
2:19:13 Garitano Rezabal, Peio (13627)

Baliarrain

2:14:10 Usabiaga Orquezabal, M.T. (13456)

Belauntza

1:37:23 Goitia Arregi, Jon (5760)
1:41:24 Ugartemendia Arbelegui, Itsaso (7228)

Berastegi

1:15:03 Plazas Tadeo, Miguel Angel (246)

1:18:07 Saizar Matxinea, Iker (491)
1:21:51 Ugartemendia, Josu (1039)
1:22:51 Matxinea Lecea, Jose (1220)
1:24:42 Malcorra Lecea, Javier (1644)
1:29:23 Agirrezabala Iturralde, Julen (2977)
1:29:37 Mujika Saizar, Aritz (3055)
1:31:16 Barriola Otxandorena, Xabi (3601)
1:39:37 Goienetxea, Fermin (6593)
1:44:40 Iriberrí Ramalle, Mertxe (8318)
1:44:40 Abukarro Barrutia, Arantxa (8319)
1:52:35 Saizar Zinkunegi, Axier (10611)
1:58:24 Lujanbio Agirre, Eli (11866)

Berrobi

1:21:31 Plazola Usabiaga, Gregorio (984)
1:25:01 Artola Noble, Nicolas (1729)
1:32:46 Odriozola Tolosa, Juan Jose (4123)
1:39:22 Lekuona Sainz, Mikel (6496)

Bidegoian

1:40:17 Eloa Azurmendi, Naiara (6831)
1:48:34 Eloa Azurmendi, Iosu (9487)

Elduain

1:16:08 Mugica Briz, Asier (317)
1:38:27 Iruretagoyena Aizpuru, Asier (6154)
2:10:13 Etxetxia Elizaran, Koldo (13259)
2:10:13 Amundarain Zubillaga, Oihana (13260)

Gaztelu

1:06:23 Otegi Goikoetxea, Ramon (11)
1:15:26 Otegi Goikoetxea, Luis M^a (269)

Hermialde

1:47:41 Fernandez Mauleon, Fco. Javier (9223)

Ibarra

1:16:45 Movellan Gibaja, Fco. Javier (370)
1:16:52 Vicente Artieda, Iban (377)
1:19:48 Cabero Gastaminza, Jon Ander (741)
1:20:02 Alzate Goitia, Andoni (778)
1:21:37 Gordejo Urrestarazu, Fernando (999)
1:22:44 Gonzalez Bodego, Eduardo (1192)
1:23:01 Saizar Ibarzabal, Xabier (1254)
1:23:11 Lopetegui Arandia, Mikel (1287)
1:23:27 Bengoetxea Iriarte, Joseba (1329)
1:23:28 Gomez Mora, Expedito (1338)
1:24:00 Gutierrez Menendez, Mikel (1466)
1:26:30 Sarasola Murua, Mikel (2108)
1:29:19 Bengoetxea Iriarte, Aitor (2952)
1:29:32 Imaz Bengoetxea, Mikel (3023)
1:30:04 Guaza Gonzalez, Alberto (3212)

1:30:51 Ortiz De Zarate Calvo, Igor (3470)
1:30:53 Mayordomo Sanchez, Iñaki (3480)
1:31:09 Huarte Ayestaran, Ramon (3555)
1:31:12 Esnaola Rodriguez, Pili (3574)
1:31:47 Goikoetxeaundia Zabala, Arkaitz (3788)
1:32:37 Iza Urretavizcaya, Amaia (4071)
1:33:13 Victoria Gomez, Marce (4262)
1:34:24 Orcaiztegui Lopez, Aitor (4649)
1:34:24 Zubelzu Jaca, Eugenio (4653)
1:35:37 Martinez Etxeberria, Haritz (5104)
1:35:45 Iglesias Iturriz, Antxon (5152)
1:37:23 Artola Satrustegui, Urko (5756)
1:38:15 Alustiza Gorria, Jon (6081)
1:39:38 Perez Berdonces, Xanti (6599)

1:40:57 Martiarena Izaguirre, Iñigo (7070)
1:44:06 Goikoetxea Idigoras, Joakin (8120)
1:46:06 Oyanluz Lopetegui, J. Carlos (8728)
1:46:06 Zapiain Lizarrabar, Igor (8729)
1:46:44 Goikoetxeaundia Atxega, Gorka (8938)
1:56:17 Perez Berdonces, Iñaki (11468)
2:05:02 Basterretxea Elezgarai, Rafa (12854)

Ikaztegieta

1:29:08 Uria Goikoetxea, Joseba M. (2888)
1:41:10 Acedo Terradillos, Anjelmar (7150)

Iruia

1:17:20 Flores Sevillano, Josu (428)
1:23:39 Ordozgoiti Zabala, Juanma (1377)
1:29:28 Martinez Iraola, Mikel (3003)
1:29:53 Olarra Zalakain, Aitor (3158)
1:37:16 Muñoz Mateos, Sonia (5713)
1:44:15 Gibelalde Barriola, Xabier (8166)
1:44:16 Egiguren Agirre, Ainhoa (8167)
1:47:07 Artola Eizaguirre, Asier (9047)
1:49:10 Rodriguez Vazquez, Javier (9670)
1:49:10 Goitia Arregi, Beronika (9671)

2:04:45 Jonsansoro Ezcurra, Aloña (12819)

Leaburu-Txarama

2:14:40 Esnaola Huici, Nagore (13474)

Leitza

1:15:33 Irazoki Ezkurdia, Iñigo (275)
1:17:07 Dorronsoro Lazzcano, Iñigo (403)
1:21:11 Uriarte Intxaurren, Iraitz (934)
1:23:01 Ugartemendia Armendariz, J.M. (1252)
1:24:15 Juntorena Baleztena, A.M. (1519)
1:29:46 Iparraguirre Lucanbio, Javier (3114)
1:30:37 Perurena Zabaleta, Inaxio (3398)
1:32:54 Parraga Zubillaga, Daniel (4164)

1:35:36 Ariztimuño Huici, Sergio (5100)
1:41:08 Salaberria Aguiriano, Alfonso (7145)
1:45:11 Hermandorena Ertivi, Garbiñe (8465)
1:46:34 Altadid Olaberria, Mikel (8891)
1:48:30 Aldaia Zabaleta, Igor (9465)
1:50:12 Craemer Van Cronenburg, Peter (9975)
1:51:20 Put Craemer, Ivan (10287) r
1:55:13 Elizalde Eskudero, Asier (11225)
1:58:40 Labayen Dominguez, Arkaitz (11920)
2:15:03 Gastesi Urroz, Mikel (13495)

Lizartza

1:34:14 Lopetegui Arocena, Maitane (4606)
1:36:44 Bengoetxea Gogorza, Iñaki (5490)

Orendain

1:18:59 Aranburu Eskisabel, Igor (588)
1:30:48 Arregi Urdanpilleta, Idoia (3444)

Orexa

1:18:28 Balerdi Atxega, Garikoitz (527)

Tolosa

1:08:35 Jauregi Leunda, Joseba (39)
1:13:11 Pagola Guruzaga, Iker (153)
1:14:11 Goya Gaztañeta, Fco. Jose (196)
1:15:09 Odriozola Otamendi, Aitor (253)
1:15:26 Lasa Goenaga, Asier (272)
1:15:27 Ollasgasti Aiestaran, Ramon (273)
1:16:48 Doyharzabal, Beñat (372)
1:18:02 Saizar Zubeldia, Xabier (484)
1:18:10 Beldarrain Salaberria, J. Maria (495)
1:18:46 Zubeldia Hermina, Fernando (567)
1:19:16 Regillaga Beloki, Aitor (638)
1:19:20 Ituria Aguirrezabala, Jexux (645)
1:19:27 Usabiaga Amundarain, Joseba (661)
1:19:48 Murua Galarza, Ioritz (738)
1:19:58 Martinez Otegi, Kepa (766)
1:20:43 Agote Garmendia, Agustín (1715)
1:22:20 Gallego Seara, Ivan (1123)
1:22:25 Iraola Urruzola, Joxean (1133)
1:22:44 Platero Blanco, Manuel (1193)
1:22:47 Uranga Bengoetxea, Fermin (1206)
1:22:52 Arana Arreseigor, Juan Ignacio (1222)
1:23:16 Carrera Larreta, Jon Ander (1296)
1:23:30 Arocena Lasa, Jon (1345)
1:24:47 Gastesi Iriarte, Jesus Mari (1668)
1:24:47 Mayorga Alonso, Santiago (1669)
1:24:58 Agote Garmendia, Agustín (1715)
1:25:26 Gonzalez Zeberio, Iñaki (1836)
1:25:37 Belza Aramburu, Josemi (1873)

«Donostia-Behobia berezia egiten du sortzen den giroak»

RAMON OTEGI Korrikalaria

I. GARCIA

Bigarren aldian izan du aurten-goia Ramon Otegi (Gaztelu, 1971) Behobia-Donostia lasterketan parte hartzen duena. Iaz 13. amaitsu zuten eta aurteangoan bi postu aurteratu ditu. 01:06:23 izan da bere denbora.

Gustura egindakoarekin?

Gustura kaketx artean jarriko nuke. Iaz ez nuen batere prestatu, maratoi bat egiteki nentorren, eta aurten dexente prestatu dut azken hila eta erdian. Denbora aldetik ez naiz oso gustura gelditu, baina ikusita aurrean ibili direnei dexente aldegin diela denborak haizea ere dexente zegoen aurpegi. Orokorrean hartuta, postua ere polita da eta ez dago kexatzetarik.

Arraroa da bakarrik bi aldiz Behobia-Donostia egin izana.

Denbora asko daramat korrikari, baina kros denboraldia egiten dut nik eta planifikazioarekin ez zaigu ondo etortzen. Baina iaz lehenengo aldiz korritu nuen eta gustatu egin zitzaidan eta aurten ez nuen udazkenean maratoirik egiteko asmorik eta udan pentsatu nuen Behobia egitea.

Zer du Behobia-Donostia lasterketak hainbesteko arrakasta izateko?

Berezia du duen giroa. Izugarria izaten da. Hasiere hasieratik jendea duzu animatzen eta nahi ez duzula ere etxean zaude. Jende asko joaten zaizu animatzerainuruko. Ibilbidea gogorra da, baina jende aldetik erantzuna izugarria da, bai eguraldi ona edo txarra izan. Mirakruzen jendea bidea irekitzen zigu korrikalari, horrekin dena esaten dizut.



FELIX SANCHEZ



ASIER IMAZ

«Postuak ez dit axola, norberaren markaren ilusio hori da kontua»

AITZIBER IBARBIA Korrikalaria

I. GARCIA

Aitziber Ibarbiak (Zizurkil, 1977) laugarren aldiz parte hartu du aurten, baina azkenekoa 2002an izan zen. Oraingoan 1:29:01 egin du, 45. maila guztiko emakumezkoen sailkapena kontuan hartuta.

Nolan berrituko Behobia-Donostia egitea?

Berriz hasi naiz korrika egiten, gehienbat mendiko lasterketak, eta horiek bukatu direnean asfaltoan hasi naiz eta gustura sentitu naiz eta aurten parte hartzea erabaki dut.

Gustura igandean egindakoarekin?

Egia esan hobeto egitea pentsatzen nuen. Duela hilabete bat ateratu nintzen antzeko beste lasterketa batean eta dexentz denbora hobea egin nuen. 1:27:00 inguru egitea pentsatzen nuen. Halere, gustura, baina ar horrekin gelditu naiz, hobeto egingo nuenaren esperantzarekin.

Nahiko aurrean gelditu zara emakumezkoen sailkapenean.

Egia esan postuak ez dit axola, azkenean norberaren marka egitearen ilusio horizaten da.

Eta korrika egiteko baldintzei dagokionez?

Haize pixka bat bazebilen eta niretzat temperatura epelegia zen. Nahiago dut freskoagoa, hobeto ibiliko nintzake. Euria ez zuen egin, baina haizeak eta beroak enbarazu handia egiten zuten.

Eta jendeak jartzen duen giroaren aldetik nola joan zen?

Giroa mundiala da. Lasterketa guzti-guztitan beti ondu inguratuta zaude. Eskertzekoa da, ahulago sentitzen zaren momentuetan indarrak ateratzen dira.


- 1:25:47 Lesaka Garmendia, Kepa (1912)
- 1:25:47 Aiceburu Zabaleta, Fabian (1913)
- 1:26:16 Lasa Zubizarreta, Juan Mari (2043)
- 1:26:26 Mendizabal, Igor (2089)
- 1:27:01 Gonzalez Irazusta, Erlantz (2248)
- 1:27:09 Urretabizkaia, Josea (2279)
- 1:28:08 Sevillano Amatriain, Aiar (2581)
- 1:28:09 Celaya Aranguren, Mikel (2586)
- 1:28:37 Doyharzabal Azurmendi, Ignacio (2718)
- 1:28:48 Sanchez Cabanillas, Eugenio (2783)
- 1:28:48 Etxeberria Inondio, Iñaki (2784)
- 1:29:30 Diaz Azkolain, Jon (3015)
- 1:29:32 Arbillaga Plazaola, Amaia (3021)
- 1:29:46 Larrea Llamas, Asier (3113)
- 1:29:47 Irazustabarrena Murgiondo, Jon Ander (3118)
- 1:29:50 Unanue Larreta, Xabier (3139)
- 1:30:06 Gómez Olaya, Xabier (3224)
- 1:30:10 Galarza Aizpuru, Jon Ander (3246)
- 1:30:21 Mendizabal Itzeta, Mikel (3299)
- 1:30:29 Jauregi Irigoien, Aitor (3341)
- 1:30:30 Gil Arancegui, Yon (3355)
- 1:30:38 Tolosa Arregi, Balen (3403)
- 1:30:47 Saez Olano, Asier (3442)
- 1:31:04 Izaguirre Ormazabal, Patxi (3528)
- 1:31:09 Pagola Zalacain, Alex (3556)
- 1:32:05 Mateos Murua, Xabi (3899)
- 1:32:14 Goya Arrese, Ana (3944)
- 1:32:15 Zufria Garcia, Ricardo (3956)
- 1:32:32 Aizpuru Santesteban, Imanol (4057)
- 1:32:50 Unanue Larreta, Sebas (4144)
- 1:33:02 Etxeberria Gorostidi, Eneko (4211)
- 1:33:21 Lastra Manzanal, Jokin (4304)
- 1:33:26 Azkue Izaguirre, J. Antonio (4329)
- 1:33:32 Egibar Etxeberria, J. Jose (4358)
- 1:33:37 Martinez Etxeberria, Zigor (4393)
- 1:33:40 Arrue Gabillondu, Naiara (4417)
- 1:34:08 Ugarte Mendia Merino, Pedro (4569)
- 1:34:20 Diaz Vitoria, Javier (4636)
- 1:34:51 Arrospide Garro, Iraitz (4836)
- 1:35:18 Balerdi Berstein, Josu (5004)
- 1:35:27 Labayen Ibaguren, Idoia (5049)
- 1:35:34 Etxeberria Albuja, Iker (5089)
- 1:35:39 Dorronsoro Ugarte Mendia, Juanan (5118)
- 1:35:55 Aranburu Huerta, Asier (5215)
- 1:35:56 Belanzaran San Sebastian, Felix (5225)
- 1:36:14 Elizalde Chasco, Elisabet (5334)
- 1:36:22 Arruabarrena Jimenez, Jurdana (5381)
- 1:36:50 Albuja Urkia, Iker (5526)
- 1:37:04 Elustondo Arrospide, Antonio (5623)
- 1:37:05 Azkue Arrastoa, Jose Luis (5638)

- 1:37:16 Perez Arratibel, Lorenzo (5707)
- 1:37:18 Anton Ormazabal, J. Antonio (5721)
- 1:37:23 Gorostia Iraola, Jon (5761)
- 1:37:24 Lacunza Lopetegui, Carlos (5762)
- 1:37:24 Eceizabarrena Eceiza, Mikel (5763)
- 1:37:24 Eceizabarrena Jauregui, Ane (5764)
- 1:37:34 Goikoetxea Valverde, David (5830)
- 1:38:51 Saizar Arostegi, Joxemi (6291)
- 1:39:00 Etxeberria Intxausti, Jon Ander (6349)
- 1:39:23 Belver Vega, Goio (6507)
- 1:39:29 Ubeda Goikoetxea, Imanol (6543)
- 1:39:30 Ubeda Goikoetxea, Jon Ander (6549)
- 1:39:45 Gonzalez Garcia, Nerea (6629)
- 1:39:52 Toledo Zabala, Ainara (6676)
- 1:40:33 Garro Arreabarrena, Antton (6926)
- 1:41:36 Bengoa Ansa, Aitor (7309)
- 1:41:53 Anton Ormazabal, Maria Jose (7393)
- 1:42:48 Oiarzabal Lakunza, Gabriel (7698)
- 1:42:52 Mendia Gomez, Iñigo (7727)
- 1:43:58 Jauregi Irigoien, Xabier (8073)
- 1:44:07 Lazkano Alkain, M. Angel (8127)
- 1:44:30 Arbillaga Plazaola, Iker (8252)
- 1:45:13 Aldalur Arrospide, Jon (8482)
- 1:45:32 Jauregi Irigoien, Martin (8566)
- 1:45:54 Arbillaga Lacunza, Javi (8667)
- 1:46:14 Alonso Uranga, Andres (8777)
- 1:46:16 Jaular Echeverria, Antxon (8783)
- 1:47:02 Arrue Iribar, Amaia (9009)
- 1:47:19 Lasa Arteaga, Amaia (9108)
- 1:47:19 Lasa Arteaga, Onintza (9112)
- 1:47:35 Gonzalez Miguel, Luis Angel (9190)
- 1:47:57 Arbillaga Plazaola, Ioana (9282)
- 1:48:04 Atrasagasti Placencia, Alvaro (9321)
- 1:48:07 Atrasagasti Placencia, Izaskun (9336)
- 1:48:28 Sukia Razkin, Alberto (9449)
- 1:49:20 Orbeagoza Lope, Guillermo (9721)
- 1:49:28 Varela Villar, Jose Luis (9766)
- 1:49:31 Mocoora Arruti, Arantxa (9783)
- 1:49:49 Sanz Vazquez, Jon (9864)
- 1:50:15 Agirrezabala Beloki, Jesus (9981)
- 1:50:16 Espina Artolazabal, Ignacio (9988)
- 1:52:01 Lakunza Zumeta, Mixel (10471)
- 1:52:36 Jauregui Beobide, Gorka (10615)
- 1:52:38 Peon Ormazabal, Olatz (10622)
- 1:52:49 Zubeldia Belanzaran, Onintza
- 1:53:26 Uranga Agirre, Xabier (10865)
- 1:53:32 Etxaide Agirre, Aitor (10886)
- 1:53:51 Mendizabal Malcorra, Mikel (10947)
- 1:54:15 Saralagui Martiarena, Leire (11048)
- 1:55:46 Jauregui Maiza, Kepa (11346)

- 1:55:49 Ezeiza Jauregi, Francisco (11361)
 - 1:55:57 Iriarte Iribar, Garbiñe (11399)
 - 1:55:57 Pagola Larrañaga, Jesus (11402)
 - 1:56:11 Lekuona Zabala, Santi (11454)
 - 1:56:12 Artola Otamendi, P. Antonio (11457)
 - 1:56:13 Riano Lanzeta, Andoni (11459)
 - 1:56:13 Conde Zubillaga, Aitor (11460)
 - 1:56:46 Martinez Agirre, Itxaso (11562)
 - 1:57:11 Amonarritz Lekuona, Iker (11618)
 - 1:57:12 Aldanondo Barandiaran, Igor (11619)
 - 1:57:15 Martinez Agirre, Eneka (11638)
 - 1:57:23 Orbeagoza Lope, Juanito (11668)
 - 1:58:05 Garayalde Goikoetxea, Idoia (11796)
 - 1:58:10 Achutegui Iraizoz, Peio (11809)
 - 1:58:18 Mayordomo Sánchez, Jesús (11839)
 - 1:58:44 Gabarain Arregi, Markos (11937)
 - 1:58:53 Aldalur Arrigorriale, Mikel (11957)
 - 1:58:53 Navascues Arana, Iñigo (11958)
 - 2:00:03 Amenabar Calvo, Joseba (12194)
 - 2:03:37 Arana Eceizabarrena, Itziar (12681)
 - 2:03:37 Sarasola Astigarraga, Beñat (12685)
 - 2:05:55 Eudaiuen Ugarte Mendia, Imanol (12953)
 - 2:07:35 Cea Garcia, Idoia (13095)
 - 2:07:48 Orbeagoza Lope, Santi (13114)
 - 2:11:43 Mateos Blanco, Taña (13350)
- Villabona**
- 1:11:36 Ait Chau Ait Chau, Hassan (103)
 - 1:11:46 Piedra Ruiz De Larrinaga, Enrique (105)
 - 1:13:59 Manso Blazquez, Iker (187)
 - 1:15:21 Ait Chau, Abderrahmane (263)
 - 1:15:42 Ansa Irazusta, Ander (285)
 - 1:16:15 Mujika Arakama, Jon (327)
 - 1:17:12 Urdampilleta, Juan Carlos (410)
 - 1:18:56 Arretxe Sarasola, Imanol (582)
 - 1:19:07 Urizar Otamendi, Luis Mari (611)
 - 1:21:20 Buitron Escorza, Rafa (957)
 - 1:21:50 Garin Arrastoa, Aritz (1035)
 - 1:22:06 Garziarena, Iñaki (1085)
 - 1:22:07 Goenaga Altuna, Aitor (1087)
 - 1:24:43 Zaldú Brit, Aitor (1649)
 - 1:25:38 Puyadena Korta, Koldo (1882)
 - 1:26:10 Erro Iruretagoiena, Mikel (2019)
 - 1:26:42 Gaztañaga Barbadó, Andoni
 - 1:26:59 Arrastoa Odriozola, Jon (2240)
 - 1:29:09 Corredera Perez, Eustakio (2889)
 - 1:30:21 Mendia Etxabe, Ainhoa (3300)
 - 1:30:50 Soto Labanda, Oscar (3466)
 - 1:32:28 Esnal Faile, Iñigo (4035)
 - 1:32:38 Gonzalez Iglesias, J. Angel (4085)

- 1:34:14 Gabirondo Cia, Josune (4607)
- 1:34:33 Urretabizkaia Iguaran, Ixidor (4708)
- 1:35:10 Lizarralde, Leire (4947)
- 1:35:42 Arrastoa Odriozola, Xabier (5134)
- 1:36:23 Arevalo Guerra, Olegario (5387)
- 1:37:54 Mitxelena Vidoar, Xabier Patxi (5957)
- 1:39:51 Arioño Zaldúa, Oier (6665)
- 1:39:52 Rosa Fresneda, M. Angeles (6675)
- 1:39:57 Arioño Sanchez, Alberto (6708)
- 1:40:18 Beobide Mujika, Aitor (6837)
- 1:40:25 De La Canal Miguel, Ismael (6876)
- 1:40:46 Mitxelena Vidoar, Jon Ander (7002)
- 1:41:16 Bravo Perez, Florentino (7178)
- 1:42:49 Arruti Sarasola, Aloña (7699)
- 1:43:26 Arruabarrena, Joseba (7903)
- 1:43:41 Galarza Irazusta, Julian (8001)
- 1:44:40 Alustiza Gofii, Xabier (8317)
- 1:45:41 Cenzano Olano, Olatz (8604)
- 1:45:54 Ayerbe Ansa, Garikoitz (8668)
- 1:47:11 Amado Leiva, Luis (9059)
- 1:49:38 Rodriguez Bermejo, Ion (9819)
- 1:49:54 Aguirrezabala, Maria Jesus (9884)
- 1:50:06 Lopez Goñi, Segio (9947)
- 1:51:00 Puga Pereiro, Sara (10195)
- 1:51:34 Urdangarin Iraeta, Andoni (10341)
- 1:51:47 Lereña Ruiz, Nuria (10396)
- 1:52:49 Alustiza Gofii, Ibon (10689)
- 1:56:43 Arteaga Usandizaga, Eneko (11545)
- 1:56:43 Ugarte Mendia, Olatz (11551)
- 1:58:45 Gurrutxaga, Asier (11939)
- 2:05:54 Alkorta Lizaso, Jose Mari (12951)
- 2:05:56 Arana Urkia, Eneko (12957)

- 2:07:08 Arruti Sarasola, Irati (13064)
- Zizurkil**
- 1:16:43 Rodriguez Barriga, Javier (364)
 - 1:21:54 Tejera Olaetxea, Mikel (1046)
 - 1:22:05 Itzeta Roteta, Iñaki (1078)
 - 1:22:49 Iparragirre Amonarritz, Ixaka (1214)
 - 1:25:25 Puyadena Urkora, Eneko (1835)
 - 1:27:20 Gomez Valle, Alvaro (2336)
 - 1:28:24 Iglesias Gonzalez, Natxo (2655)
 - 1:29:01 Ibarbia Beloki, Aitziber (2843)
 - 1:29:18 Arruabarrena Espin, Josu (2945)
 - 1:30:15 Boujema Abas Sarghini, Said (3274)
 - 1:32:54 Arroyo Echave, Urko (4165)
 - 1:34:08 Fernandez Arruabarrena, Gorka (4567)
 - 1:34:43 Axtaga Ansa, Arkaitz (4768)
 - 1:35:50 Herrera Fernández, José María (5172)
 - 1:36:25 Sansebastian Elola, Julien (5398)
 - 1:37:16 Arandi Mendizabal, Jon (5710)
 - 1:38:21 Gurrutxaga, Joseba (6117)
 - 1:39:03 Ormaetxea Arsuaga, Jon (6370)
 - 1:40:21 Altuna Tolosa, Iñaki (6856)
 - 1:41:32 Arandia Mendizabal, Eba (7278)
 - 1:44:03 Arruabarrena Olaiz, Urko (8094)
 - 1:47:28 Izaguirre Aramendi, Ainhoa (9150)
 - 1:48:47 Rodriguez Bermejo, Imanol (9555)
 - 1:52:13 Usabiaga Jonsansoro, Joxemari (10525)
 - 1:58:54 Iparragirre Bordagaray, Patxi (11963)
 - 2:05:55 Sorozabal Iturain, Egoitz (12955)
 - 2:05:55 Castro Manterola, Jose (12956)
 - 2:09:04 Zugasti Ormazabal, Ingartze (13202)
 - 2:18:53 Arandia Saralegi, Pello (13621)



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Ikusgai, bidezko merkataritzaren inguruko argazki erakusketa

Villabona » Setem erakundeak hainbat ekintza antolatu ditu datozen egunetarako, Gurea antzokian.

ERREDAKZIOA

Setem Hego Haizea erakundeak bidezko merkataritzaren inguruko sentsibilizazio jarduerak antolatu ditu. Honekin, nazioarteko merkaturun funtzionamenduari eragin kaltegarriak ezagutzera eman nahi dituzte. Xede hori lortzeko, kafea eredu paradigmatico moduan erabili dute, eta kontsumo arduratsuen parametrotan,

bidezko merkataritzaren berri ematea eskubide sozialak eta ingurumena babesten dituen alternatiba erreal gisa.

Antolatutako ekintzen artean, aste guztian zehar ikusgai da Peru, Ghana eta Indonesiako hiru nekazari erakunderen egunerokoa erakusten duten argazkien bilduma, Gurea aretoko ikusgeletan. Hiru erakunde hauek kafea produzitzea euren komunitateen garapenerako tresna gisa planteatzen dute, ezaugarri bereizgarri batekin: hiruak, neurri desberdinean bada ere, Bidezko Merkataritzaren parametroen barruan egiten dute lan. Erakusketa arratsaldetan egongo da zabalik 17:00etatik

20:00etara. David Quintas, Quintas Fotografos lantaldearen koordinatzaileak ateratu ditu argazkiak.

Kafe ekoizleen egoera

Etzi, *Black gold* dokumentala emango dute Gurea antzokian, 19:00etan. Filman kontatzen da, nola Mendebaldeko herritarrek moka, capuccino eta bestelako kafe aukeraren zapore gozo eta atsegina dastatzen duten bitartean, pobrezia jotako Etiopiar kafe ekoizleek injustizien zapore garratzarekin konformatu behar dute. Honen ostean Bidezko Merkataritzako hainbat produktu dastatzeko aukera egongo da, eta gehiegi ezagutzeko aukera.

Hernandez doa lidergoan, orain arteko partida guztiak irabazita

Xakea » Gipuzkoako Banako txapelketa ari da jokatzen; bi txanda falta dira irabazlea nor izango den jakiteko.

ERREDAKZIOA

Aurreko asteburuan Gipuzkoako banakako txapelketako beste txanda bat jokatu zen Tolosako Xake Elkartearen. Bi txanda falta dira bakarrik baina oraindik edozer gauza gerta daiteke. Villabona-ko Miguel Hernandez da oraingoz saikapeneko nagusia. Izan ere,

orain arte jokatutako partida guztiak irabazi ditu. Baina sei jokalariditu puntu bakarreko aldearekin, beraz ez du huts egiteko aukera handiegirik.

Datorren larunbatean azken aurreko txanda jokatuko da. Lehendabiziko postuetan daudenean beaien artean jokatu beharko dute eta txapelketako irabazlea nor izan daiteken jakiteko erabakiorra suerta daiteke. Baina txapelketa honek bigarren mailara igotzeko hiru postu eskaintzen ditu. Honenbestez, podiuma nork osatuko duen jakitea ere garrantzitsua izango da.

Eskualdeko abeslariak izan dira onenak Gipuzkoako txapelketan

Musika » T-Klax, Garazi Egiuren eta Kristina eta Leire izan dira garaile Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketan.

ERREDAKZIOA

Herenegun, arratsaldean jokatu zen Donostiako Antzoki Zaharrean Gipuzkoako XII. Euskal Kantu Txapelketako finala. Bertan, eskualdeko ordezkariak punta puntan ibili ziren, hiru kategorietako lehen postuak poltsikoratuz. Bakarlarien artean, Garazi Egiuren tolosarra izan zen garaile *Zuretzat nituen arrosak hazi* abestiarekin. Binakakoetan, Aduna eta Ibarra-ko, Leire eta Iñar sailkatu ziren lehen postuan, *Gertu izango nauzu* kantuarekin. Azkenik, taldekakoan, Ibarra-ko T-Klax izan zen irabazlea, *Zoo ilogikoagoa* abestiarekin. Dena den, atal horretan irabazteaz gain, sorkuntza eta publikoaren saria ere eraman zituzten ibartarrek.

Antzoki Zaharra gainezka beta



Taldean atalean, T-Klax hirukotea izan zen garaile; sorkuntza eta publikoaren saria ere irabazi dituzte. HITZA

zen eta antolatzaileen esanetan, «maila altua egon zen finalean». Zenbait saritan puntu gutxiko alde egon zen finalisten artean eta lehia oso estua izan zen.

Bestalde, aipatutako sariez gain, beste batzuk ere banatu ziren, eta Kristina eta Leire bikoteak, ahots enpastearen saria eraman zuten. Aurten, berrikuntza modura,

Euskal Kantuzaleen Elkarteak disk bat grabatzeko aukera eman-got die txapelketan sorkuntza lana aurkeztu duten guztiak. Horrez gain, txapelketan parte hartu du-

ten lau lehiakideek ere izango dute disko horretan abesteko aukera, nahiz eta sorkuntza lanik ez izan hauek. Lau kantari horiek epaimahaiak aukeratu zituen eta horretarako egokienak izan daitezkeen lau aukeratu zituen igandeko finalean: T-Klax, Garazi Egiuren, Ira-ti Odrizola eta Bea Asurmendi.

T-Klaxek poltsikoratu ditu sari gehien

Jon Altuna, Jagoba Astiazaran eta Iñar Sastrek osatzen dute T-Klax taldea. Iaz aurkeztu ziren lehendabiziko aldiz txapelketara *Zoo ilogiko* kantuarekin. Orduan, arriskatu ziren, baina ez zuten arrakasta handiegirik lortu. Aurtengoan berri-z, ildo beretik jarraituz, *Zoo ilogikoagoa* kantuarekin etorri dira, eta irabazi egin dute.

Taldeakideak harrizta daude horrenbeste sari lortu izanarekin, «iaz gutxiegi eman genuela uste dut, eta aurten berri-z, gehiegi» zioen atzo, biharamunaren ostean Jon Altunak. Bestalde, emaitzaren arrazoia, proposamen berri-ztaile batekin aurkeztu izana dela uste dute. «Gauza edo egitasmo berria da gurea, eta horrelako musikak beti erakartzen du» diote ibartarrek. Antzerkia eta musika uzartzen dituzte taula gainean, umore eta ironia puntua erantsiz emaldi-diari.



Promozio berria -Ibarra-

Sustatzailea:
Epergain
Eraikuntzak eta
Promozioak, S.L.
Eraikitzen du:
Aburuza
Eraikuntzak S.A

Kale Berria 46 • Villabona • 943 69 0297 • www.aburuza.com



Bakarlarien artean, Garazi Egiuren izan zen irabazlea. HITZA



Aimar Irigoien, Albitzuri Haundi Harria sorbaldaren gainean jartzean. IYUYA URRUTIA

Harri Festa arrakastatsuan Irigoienek harri berezienak altxatzea lortu du

Amezketak » Albitzuri Haundi eta Altziko Harria bost aldiz jarri zituen sorbaldan; harriak zulatzen eskualdekoak aritu ziren.

NEREA URBIZU

Eta espero bezala, Aimar Irigoien harri-jasotzaileak bere marka berria ezarri zuen Amezketako Albitzuri Haundi eta Altziko Harriak jasota, Harri Festaren baitan. Irigoienek 16 urte zituenean Albitzuri Haundi harria lehen aldiz jaso zuen eta orduan lau altxaldi egin zituen harri trakets honekin 10 minuturen baitan. Oraingoan, bost altxaldi egin zituen eta denbora gutxiagoan gainera (3 minutu eta 4 segundo).

Ikusle andanaren erantzuna, merezitako txalo zaparrada izugarria izan zen. Altziko Harria ere jaso zuen, baina lehen aldiz, eta harriarentzat ere, lehen aldiz izango zen herenegungoa: izan ere, Aralarren egon da orain arte eta bertan egiten omen zituzten jasoaldiak. 140 kiloko harri hau ere bost aldiz altxatu zuen sorbalda gainera.

Harri-zulatzean bost talde des-

berdin aritu ziren Amezketako Harri Festan. Amezketako hiru-kote batek eta Altzoko beste batek hartu zuten parte, ia profesionalak direnen kontra. Nork daki, agian hurrengo urtean txapelketa ofizialean parte hartuko dute...

Kontua da, Altzok laugarren postua lortu zuela 7 zentimetroko 8 zulo eginda (norgehiagokako sakonenak), eta Amezketako hirukoteak, berriz, 7 zulo eta 3 zentimetroko sakonerakoak. Ez dago gaizki, kontuan izanik Altzoko enbigarren saioa zela, eta amezketaren aurrenekoa.

Herenegungo txapeldunak Meatzaldeak taldea izan zen, Bizkaiko talde bat. Altzok eta Amezketak harri-zulaketan jarraituko balute, Gipuzkoan hiru talde izango lirarteke (Lehendik Hondarribian dago beste bat. Jaizubia).

Kultur ekitaldiekin aurrera

Gaur San Martin eguna ospatuko dute, eta bihar, berriz, Amezketako Kultur Hamabostaldiaren baitan beti ere, Mikel Errazkinek *Gerra Zibila* izeneko hitzaldia bideratuko du, balioanitzeko gelan eta 20:30ean hasita.



Harri-zulaketan, bizkaitarrak. Berdez, Amezketakoak eta horiz Altzokoak. I.U.

San Martin eguna izanik, jaiak gaur hasiko dira

Gizartea » Amasan festei gaur helduko diete, zaldi proba eta bertsolariekin; Amezketan gaur umeen eguna antolatu dute.

ERREDAKZIOA

Gaur San Martin eguna da, eta Amasan festak dituzte. Amezketan, berriz, Kultur Hamabostaldiaren baitan San Martin eguna ospatzeko asmoa dute gaur, umeen egunarekin batera.

Amasako egitaraua oso zabal da, izan ere, gaur hasi eta igandera bitarte, egunero zerbait izango da baina ez da hor egitaraua bukatzen, berriz ere hilaren 22an eta 23an jaiak baitago.

Amasako kultur taldeak argazki lehiaketa antolatu du. Landu beharreko gaia Amasako festak 2008

da. Parte-hartzaile bakoitzak 15 argazki aurkeztu ditzake gehienez, formato digitalean. CDan entregatu behar da lana eta honekin batera norberaren datuak sobre batean jarrita, kanpoaldean. CDan, berriz, ezizen bat jarri behar da. Iturri Goxoko kaxa batean sartu behar dira aurkeztu beharrekoak. Parte hartzeko azken eguna gaur zortzi da (asteartea).

Amezketan umeen eguna

Amezketan aurrera jarraitzen dute Kultur Hamabostaldiarekin. Gaur San Martin eguna antolatu dute ere eta bertsolariak, Lajarekin dantza egiteko aukera eta bazkaria ere izango dira. Haurren eguna izanik, 13:30a aldera soziedadean umeen bazkaria antolatu du guraso elkarteak. Ondoren, indarrez beteta, Kulkirekin jolastera joango dira, gero meriendatzeko.

» SAMARTINETAKO EGITARAUAK

AMASAKO JAIAK Azaroak 11, gaur

- 10:30. Meza Nagusia.
- Ondoren. Zaldi proba: Sorozabal eta Peñagarikano bertsolariak eta trikitilariak ere izango dira.
- 20:00. Martina sorginari ongietorria eta pintxo dastaketa Kultur Etxean.

Azaroak 12, bihar

- 17:00. Joko garbi partida.
- 18:00. Pala partida.
- 20:30. Mondeju afaria Uxo Toki elkartearen.

Azaroak 13, Gazteen Eguna

- 06:00. Gazteen gosaria Ongi Etorrin, trikitilari eta dultzaineroekin.
- 14:00. Gazteen bazkaria Uxo Toki elkartearen.
- 16:30. Soka dantza eta *Aureskua* plazan.
- Ondoren. Trikitilarien erromeria izango da.
- 21:00. Gazteen afaria Iturri Goxo jatetxean.

Azaroak 14, ostirala

- 17:30. Pirritx eta Porrotx.
- Ondoren. Txokolate beroa.

- 20:00. Amasako XVII. Bakailao Lehiaketa frontoian.
- 23:30. Dantzaldia Laiotzekin.

Azaroak 15, larunbata

- 12:00. Asto lasterketa mozorroturik.
- Ondoren. Dultzaineroak.
- 14:00. Herri bazkarian txekor-jatea.
- 17:30. Mus txapelketa Kultur Etxean.
- 22:30. Bertsolariak: Agirre, Barandiaran, Gaztelumendi eta Irazu.
- Jarraian. Trikizio taldea.

Azaroak 16, igandea

- Meza ondoren. Herriko artzain-zakur lehiaketa.
- 18:00. Herri kirolak herriko gazteen artean.

AMEZKETAN GAUR

- 11:00. Meza San Martinen.
- Ondoren. Bertsolariak eta Lajarekin dantza egiteko aukera.
- 14:00. Bazkaria Errekalden. Ondoren, Landarekin dantza.
- 15:00. Kulkirekin haurrentzako herri kirolak eta baserriko jolasak.
- Ondoren. Merienda goxia.

txokoa **h**

Sarrera pareta zozketan!
deitu eta eskuratu



BRUESA GBC
DKV Joventut

IGANDEA

AZAROAK **16-12:30**

ILLUNBE

Goar Jimenez gaztea espetxeratzeko arriskuan da

Ibarra » «Muntaia polizial» baten ondorioz gaztea espetxera joan daiteke; Ezker abertzaleak mobilizazioak egingo ditu.

REBEKA CALVO

Ibarraldeako zazpi gaztek orain sei urte hasitako «bide ankerrak» ez du, oraingoz behintzat, amaierarik izango. Orduan, kale borrokaren salaketapean, atxilotu egin zituzten eta espetxera bidali zituzten. Torturak jasan zituztela ere salatu zuten gazteek. Hauek pasata epaileak aske utzi zituen, nahiz eta urte hauetan «ezjakintasuna» izan den nagusi, «espetxearen mamua» izan baitute bizkar gainean.

«Desagertarazi nahi gaituzte»

Azken berriak, ordea, ez die lasaitzeko aukerik eman: euretako bat, Goar Jimenez, espetxe arriskuan dago, besterik esan ezan, badirudi besteak aske utziko dituztela, Ibarako ezker abertzaleak Ibarako plazan egin agerpenean azaldu



2002tik «mehatxupean» izan diren Ibarraldeko zazpi gazteak. R.C.

zuenez. Goar Jimenez, hortaz, espetxera joan daiteke, «muntaia polizial baten ondorioz eta aurrekari penalak dituela argudiatuz», salatu zuten ezker abertzaleak. «Desagertarazi nahi gaituzte, baina ez gaude etsitzeko prest. Guztion artean herri hau benetako marko demokratiko batera eramateko gai gara, eta egingo dugu. Horregatik hemendik herriari deialdi bat egin

nahi diogu, mobilizatu dadin, antolatuta dadin eta elkartasuna adierazi dezan», gaineratu zuten.

Hau guztia dela eta, eta datozten egunean Goar Jimenezen kontrako salaketarekin zer gertatuko denaren zain, datozten egunetan mobilizazioak izango direla aurreratu zuten ezker abertzaleak eta bertan parte hartzeko eskaera ere luzatu zieten herritarrei.

«Muntaia polizial baten aurrean gaude; ez dute lekukorik»

GOAR JIMENEZ » Espetxera joan daitekeen gaztea

Errepresioa » 2002. urtetik 'baldintzatuta eta mehatxupean' egon eta gero espetxera joan daiteke datozten egunetan.

R.C.

Zazpi gazteetatik bakarra joan daiteke espetxera, hori bai, guztiak ordaindu behar izan dute ixuna eta datozten hiru urteetan kili-kolo egongo dira, gainera.

Noiz jakingo duzu epaitegian sartutako helegitearen erantzuna?

Datozen egunetan. Helegitea onartzen ez badute, lehenik eta behin, niri jakinarazi behar didate agindua eta ordutik hamar eguneko epea dute ni espetxeratzeko.

Zazpietatik zure aurkako espetxe agindua bakarrik dago indarrean; zein da egiten duzun irakurketa?

Muntaia polizial baten aurrean gaudea; ez dute inongo lekukorik



REBEKA CALVO

beraien bertsioa berresteko, eta hala ere, nire egia baino gehiago balio du beraien hitzak. Sei urte hauetan baldintzatuta eduki gaituzte gure borroka gelditzeko eta orain gutako bakarraren aurkako espetxe zigorrarekin jarraitzen dute, nire ustez, gure arteko talka edo bilatzen dute horrela. Baina argi dago ez dutela lortu, denak elkarrekin gaudea, eta bide honetatik ez dutela gazteon borrokarekin amaituko.



Meza Erretiratuen Egun alaiean

GAZTELU » Gazteluko Kultur Astearen barruan, urtero egin ohi duten moduan, Erretiratuen Eguna ospatu zuten igandean herrian. Lehenik eta behin, meza izan zuten herriko elizan eta ondoren dantzarien emanal-

dia ere izan zuten plazan. Eguerdia iristean bazkaltzera joan ziren erretiratu guztiak. Kontseju tabernan izan zuten otordua eta ondoren, giro benetan alaiean, opari banaketa izan zuten. www.urruja.com

Denboraldiko partidarik onena, Nafarroan

Ibarra » Nafarroako Erriberak bi goletako alde atera zion Lauburu taldeari; oso fin ibili ziren, hala eta guztiz ere, Ibarakoak.

jakalariak, nahiz eta David Prados, Ruben Etxart, Victor Silva eta Aitzol Oyarbide ere jokatu ziren. Ordezko atezaina Joseba Balerdi izan zen eta Aritz Otaegi egon zen aukian.

ERREDAKZIOA

Oso partida polita izan zen larunbatekoa. Nafarroako Erriberaren aurka aritu ziren Ibarako Lauburukoak eta 5-3 galdu bazuten ere oso ondo aritu ziren. Denboraldiko partidarik onena jokatu zutela ere esan daiteke. Igor Zabalo, Ion Garmendia, Unai Labaca, Ion Ander Karrera eta Loitzun Sanz izan ziren zelaieratu ziren lehen bost

Jokaldi onak

Partidua bi ekipoen jokaldi onenkin hasi zen, baina Ibarakoek hartu zuten lehendabizi aurrea; David Pradosen partiduko lehen golarekin. Pradosek beste gol bat sartu zuten ondoren, eta ibartarren hiru-garrena Victor Silvak sartu zuen.

Bestalde, Lauburukoek Nafarroako taldearen «umiltasuna eta dedikazioa» azpimarratu nahi izan dute.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Expe Lizarragak eman zion saria Mikel Illarregiri Udal Liburutegian burutu zen sari banaketa ekitaldian. ASIER IMAZ

Mikel Illarregik irabazi du Altzadik antolatutako Ipuin edo narrazio lehiaketa

Leitza » lazko eta aurtengo lanak bilduma batean kaleratuko dituzte Altzadi Kultur Elkarteak jakinarazi duenez.

ASIER IMAZ

Mikel Illarregi leitzarrak irabazi du Altzadi Kultur Elkarteak antolatutako III. Ipuin edo narrazio lehiaketa.

Iragan astean banatu zituzten sariak eta ekitaldian, parte-hartzaileen lanak hiru herritarrek irakurri zituzten: Mamen Uhartek, Itziar Alzelaik eta Ainhoa Vigue-
rak.

Sarituak, narrazioak eta sariak

Mikel Illarregi *Erramun Moskuran* zuten zuten bere burua Erramunek. Aspaldiko kontua zen.

Duela 30 bat urte, Komunisten Ligako jarraitzaileak zirenean, Erramun, garai hartako egunerokotasunean murgildurik, munduan gertatzen ziren egoerez hitz egiteko asmotan elkartzen zen lagunekin. Auazoan beldirik ezagutu zuten taberna kuttunean biltzen ziren. Badaezpada ere, atze aldeko gelatxo batean. Gogoan duen azkenekotariko batean, gizartearen aldaketa politikoaz aritu ziren, gehienetan bezala. Nahiz eta baikoitzak besteek zer pentsatzen zuten jakin, eztabaidek ez zuten mugarik, gaueko ordu txikitari amaitu arte, edota tabernariak zarata handi samar ateratzen ari zirela esatera etortzen zen arte. Garai hartan, jada, Sobiet Batasunean eskuina eta ezkerrean ba ote zen eztabaidatzen zuten. Munduan halako bereizketarik egin ote zitekeen ondorioztatzen zuten. Giza-
kia Ipar Ameriketako *Yankien* eskema pauso azkarretan bereganatzen ari girela baieztatzen zuten batzuk. Ordura arte erabilitako hizkuntza politikoa, jerga politikoa ez ote zen modaz pasatzen ari, zalantza modura azaltzen zuten beste batzuk. Eta abar, eta abar... Finean, zalantza orokorren dekadentzia, beheranzko bidea alegia, ailegatzear ote zen»...



Hiru herritar aritu ziren lehiaketan aurkeztutako lanak irakurtzen. A. IMAZ

'ERRAMUN MOSKURANTZ ABIATU ZENEKOA'

«**Aspaldikoa:** Aspaldidanik egin asmo zuten bidaiaren hasieran aurkitu zuten bere burua Erramunek. Aspaldiko kontua zen.

Duela 30 bat urte, Komunisten Ligako jarraitzaileak zirenean, Erramun, garai hartako egunerokotasunean murgildurik, munduan gertatzen ziren egoerez hitz egiteko asmotan elkartzen zen lagunekin. Auazoan beldirik ezagutu zuten taberna kuttunean biltzen ziren. Badaezpada ere, atze aldeko gelatxo batean. Gogoan duen azkenekotariko batean, gizartearen aldaketa politikoaz aritu ziren, gehienetan bezala. Nahiz eta baikoitzak besteek zer pentsatzen zuten jakin, eztabaidek ez zuten mugarik, gaueko ordu txikitari amaitu arte, edota tabernariak zarata handi samar ateratzen ari zirela esatera etortzen zen arte. Garai hartan, jada, Sobiet Batasunean eskuina eta ezkerrean ba ote zen eztabaidatzen zuten. Munduan halako bereizketarik egin ote zitekeen ondorioztatzen zuten. Giza-
kia Ipar Ameriketako *Yankien* eskema pauso azkarretan bereganatzen ari girela baieztatzen zuten batzuk. Ordura arte erabilitako hizkuntza politikoa, jerga politikoa ez ote zen modaz pasatzen ari, zalantza modura azaltzen zuten beste batzuk. Eta abar, eta abar... Finean, zalantza orokorren dekadentzia, beheranzko bidea alegia, ailegatzear ote zen»...



Nafar Jokoan jardunaldi berri bat jokatu zen asteburuan Amazabalen. HITZA

Leitzako pilotariak Nafar Jokoetan eta herri txapelketetan

A. IMAZ

Asteburuero bezala, Aurrera Pilotari Eskolako pilotariak, Nafar Jokoetan eta herri ezberdinetako txapelketetan parte hartu zuten.

Nafar Jokoak: emaitzak

Paleta Goman, Amazabalen, Iera Agirre eta Saioa Aristorena bikoteak 30-21 irabazi zuten euren partida.

Eskupilotan, Sagastibeltza Lasarte-Anartz Olanok 18-3 irabazi zuten. Aldaregiak eta Jaunarenak 22-16 galdu zuten. Joseba Eskudero-Joanes Illarregik 18-7 galdu zuten, Ander Alduntzin-Beñat Alzelaik bezala, hauek 13-18. Igartua eta Hernandorena ere galtzaile suertatu ziren, 19-22.

Amazabalen jokatuako partidetan bi bikote hauek lortu zuten

garaipena: Ander Eskudero-Jon Lezeak (18-12) eta Oier Igartua-Iñaki Saralegik (3-18).

Nafar Jokoen barnean, baina Leitzatik urrun, ondorengo emaitzak lortu zituzten Aurrerako pilotariak: Lizarran, Onsalo-Eraso 22-16 gailendu ziren. Burlatan, Aimar Gilek eta Mikel Erasok 10-18 galdu zuten euren partida, Ibai Barbarena-Iñigo Mitxausen (9-18) antzerara. Azkenik, Uhartar Arakilen, Ander Gartziaarena-Markel Barriolak 18-7 irabazi zuten.

Egjan eta Burlatan

Egiako Txapelketan Jaunarena-Albisu bikoteak 22-18 irabazi zuten Epelde-Agirianori.

Burlatoko Txapelketan, Olanok Jaunarenak 18-5 nagusitu ziren Eskudero-Paredesen aurka.

'Herria Kantuz' beteko dute abenduaren 13an

Villabona » 'Herria Kantuz' ekimenaren inguruko lehen batzarra, nondik norakoak azaltzeko, etzi 20:00etan egingo dute udaletxean.

A. IMAZ

Loatzo Musika Eskolak, Eresargi Abesbatzak, Oinkari Dantza Taldeak, Villabonako Udalak eta hainbat herritarrek *Herria Kantuz* ekimena aurkeztu dute.

Batzar informatiboa, etzi

Ekimenaren nondik norakoak argitzeko bilera etzi egingo dute antolatzaileek, 20:00etan udaletxean. Informazio gehiago nahi duenari dei egin die antolatzaileek, bilerara ager daitezzen eskatuz eta parte hartzeragobidatuz.

Zer da 'Herria Kantuz'?

Euskal kulturen kantuak izan duen garrantzia gogoratuz eta ohi-turak mantentzeko asmoz jarri dute abian ekimena. Lehen saioa abenduaren 13an egingo dute, 11:00etan Berdura plazatik irten da. «Herri giroan euskal abestiak abestuz» ibiliko dira herrian barne. Ondorioz, euskal kantuak abestea gustuko duenak aukera bikaina dauka Villabonan.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zaintzailea.** Asteasu-Zizurkil inguruko emakume bat behar du gu gautan amona bat zaintzeko. 615 79 09 65.



13°
8°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	13°
HOTZENA	8°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaalde@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibaralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko ideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Alkiza.** San Martin jaietako bazkaria hilaren 16an izango da, eta txartelak salgai daude 15eurotan helduenak eta 5 eurotan 12 urtetik beherakoenak, Ostatu jatetxean eta Elizegi tabernan.
- **Ibarra.** Alurr dantza taldeak *Sua* ikuskizun berria aurkeztuko du hilaren 16an Leidorren, 19:30ean. Sarrerak salgai Servikutxan.
- **Tolosa.** 1958an jaiotakoek koktela eta afaria izango dute Fronton jatetxean. Izen-ematea, bertan 50 eurotan (619 420097).
- **Tolosa.** Aisialdi itsasuntzi eta yate patroia eta kapitain izateko ikastaroa Tolosan. Informazioa: 665 724870 telefonoan.
- **Tolosa.** Aspe (2.645 m) eta Oroel (1.769 m) mendietara (Pirinioak) irteera antolatu du Oargi elkarteak datorren astebururako. Izen-ematea, 637 830380 telefono zerbaki.
- **Tolosa.** Urbasa - Goñi ibilaldia antolatu du Alpino Uzturre mendi elkarteak hilaren 16rako. 7 orduko ibilaldia da eta Saratsa (1.171 m) igoko da. Izen-ematea, elkartearen (943 652789)
- **Tolosa.** Babarrunaren Astearen baitan, hilaren 21ean Slowfood (janari mantsoa, Fast Food-en aurkakoa) afaria izango da Fronton jatetxean (erreserbak 943 652941 telefono zerbaki), eta hilaren 22an Babarrunaren ibilbidea egingo da (izen-ematea, Tolosaldea Tourren, 943 697413).
- **Tolosa.** Tentteak aisialdi taldearen Inauteri konpartsarako izen-ematea San Frantzisko parrokiako lokaletan, 19:00etatik 20:30era.
- **Villabona.** Biltoki jubilatuen elkartean Logroñora irteera antolatu du hilaren 20rako. Izen-ematea, Biltokian, Txerminen.

Erakusketa

- **Tolosa.** Vanessa Alzateren pintura, eskultura, grabatu eta collageak ikusgai Aranburu Jauregian.
- **Villabona.** *Kafearen begiradak* erakusketa, Setem Hego Haizea erakundearen eskutik, Gurea areto erakusgelan, azaroaren 16ra arte, 17:00etatik 20:00etara.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.



Aureskua dantzatu zioten Jesus Altunari bere izeneko plaka bistataratu ostean. IYUYA URRUTIA

Kultur Astearen baitan larunbatean hitzaldia eman ondoren, herenegun omenaldia egin zioten berastegiaren Jesus Altuna arkeologoari; bere omenezko plaka jarri zuten bere izena duen kalean.

Herriarren omenaldi beroa

ERREDAKZIOA

Herriarren eskutik jasozuen Jesus Altunak omenaldi xumea herenegun bere jaioterrian, Berastegin. Iagoiz osoan zehar hainbat ekitaldi presatu zizkieten herriarrek, eta arkeologo ezaguna hunkiturik agertuz.

Lehendabizi meza egin zuten, eta herriarrek elizkizunean zeuden bitartean eta zuziria bota eta gero, txistulariek kalejira egin zuten herrian zehar. Dantzariak dantza saioa eskaini zioten Altunari mezatik ateratzean, eta herriko elizadagoen lekutik, gero plazara

joan ziren, han jarraituko baitzuen omenaldiak. Aitor Lizartza Berastegiko alkateak hartu zuen hitza, eta Jesus Altunak egindako «lan handia eta eskuzabaltasuna» nabarmendu zuen; hala, egurrezko eskultura bat ere oparitu zion herriaren izenean.

Ondoren, Jesus Altuna izena jarri dioten kalean bere omenezko plaka bistataratu zuen. Eta une hunkigarri horretan aureskua dantzatu zioten.

Omenaldi beroa eta erraz ahaztuko ez duena, beraz, herriarrek bere jaioterrian herenegun egin ziotena.



Jesus Altuna elizkizunetik irtetean, dantzariekin. IYUYA URRUTIA

A Agurrak



Urte askoan!

Eusko (Abaltzisketa). Urte bat gure pottokoak. Ondo pasa Nahikariren eta denon partetik. Paaa!

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZaren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZaren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak